

## **UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN AHOLKU BATZORDEAREN OHIKO BILERAREN AKTAREN LABURPENA**

2017ko irailaren 29ko 10:00etan, Bilboko Ikerbasqueren egoitzan, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Aholku Batzardea bildu da, honako kide hauek bertaratu direla:

Batzordekideak: Agentziako zuzendari Eva Ferreira andrea, César Arrese-Igor jauna, Endika Bengoetxea jauna, Teresa Riesgo andrea eta Gemma Espigares andrea.

Ezin etorria adierazi dute: Eunate Elio andreak, Joaquín Losada jaunak, Jean Yves Puyo jaunak, Ruth Zimmerling andreak, Cristina de la Cruz Ayuso andreak eta Sandrine Sana-Chaillé andreak

Unibasqen aldetik Eva Fdz. De Labastida andrea (Nazioartekotze eta Proiektuen arduraduna) bertaratu da.

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta onartzea. (O)
2. Zuzendariaren txostena.
3. Euskal Unibertsitate Sistemaren Doktorego programen titulu ofizialen egiaztapena berritzeko protokoloa. (O)(\*)
4. Unibertsitate Gradu eta Masterren irakaskuntza dualaren onarpena lortzeko protokoloa. (O)(\*)
5. Langile akademikoen irizpideak titulu ofizialen ebaluazioan. (O)
6. Kontratutako irakasle eta ikerlari eta Unibertsitate Pribatuetako Irakasle doktoreak ebaluatzeko eta akreditatzeko protokoloa. Ikerketa- irakasleen akreditaziorako irizpideak. (O)
7. UPV/EHU-ko irakasleen eta ikertzaileen banakako ordainsari osagarriak ebaluatu eta esleitzeko protokoloaren garapen-dokumentua. (O)
8. Ebaluazio Batzardeen kideen izendapenak eta kargutik kentzeak. (O)
9. Ikerkuntzaren ebaluaziorako protokoloak Ikertramoak eta Iker22.(O)
10. Unibertsitate ranking-ei buruz txostena.
11. Galderak eta eskaerak.

O) Onarpen puntua.

Quorum eza zegoenez (azken momentuko baxak) eta gai zerrendaren puntu gehienak onartzeko puntuak direnez, bertaratutakoekin bilera egiten da informazio gisa eta onartzeko diren puntuak hurrengo asteetan online onartzeko gelditzen dira.